

Legazpik 'Biblioporrak' gida kaleratu du irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko

Ikastetxeetan banatuko da, web orrian jarriko da eta udal liburutegian eskuragarri egongo da

legazpi. Aurten ere Legazpiko udal liburutegiak Biblioporrak udako gida kaleratu du. Ekimen honen helburua irakurzaletasuna eta kultura bultzatzea da. Aisialdi garaian irakurketari ekin nahi diotenei eta ohiko irakurleei argitaratu den guztiaren berri izateko aukera eskaintzen diete.

Liburuko arduradunek gidan azaltzen diren argitalpen guztiak irakurri dituzte eta, gainera, hautatutako lanek kritika ezin hobeak jaso dituzte komunikabideetan. Guztiak nobedadeak dira eta dendetan eskuragarri daude. Horretaz gain, gida egiten parte hartu duten liburutegietan maileguan lor daitezke.

Aurten zazpi liburutegitako langileek prestatu dute gida eta Legazpikoek seigarrengoz parte hartu dute ekimenean. Gidan 79 liburu, bederatzi disko eta zortzi pelikula gomendatzen dira. Ikastetxe guztietan banatuko da, Legazpiko udaleko web orrian jarriko da eta aipatutako liburutegi guztietan eskuragarri egongo da. >a.z.